

**PIERRE LHANDERen YOLANDA:
OHAR BATZUK**

0. BIZITZA

Pierre Lhande Baionan sortu zen (1877). Haurtzarotik, baina, bere amatxik Zalgizen zeukan jauregian eman zituen aldi luzeak. Han ikasi zuen euskaraz eta bere burua zuberotartzat zeukan.

Josulagun egin eta mundu osoan barna ibili zen. Espainian Puerto de Santa Marian frantsesa irakasten jardun zuen.

Hogeigarren gizaldiko hasieran Frantzian Jesusen Lagundia-
ren kontra eraso handia izan zen eta Tolosako josulagunek
etxea eraiki zuten Hernanin.

1911tik 1921ra arte, Pierre Lhande Hernaniko etxe horretan
bizi izan zen. Hizlari sutsua omen zen.

Aldi honetan mugaz honantzako euskaltzale askoren eza-
guera egin zuen. 1918an Oñatiko Batzarrean berehala nabar-
mendu zen bere lan kementsuagatik.

Hurrengo urtean Euskaltzaindia sortu zutenean, Pierre
Lhande bazkide egin zuten. *Eusker*a aldizkaria eratzen bera
izan zen langilerik bizkorrena.

1921ean *Argia* aldizkariak liburuak eta liburuxkak argitaratzeko asmoa hartu zuen eta hain zuzen ere lehenbiziko alea Lhanderen irakurgai hau, *Yolanda* izan zen.

Lhandek urte horretan bertan alde egin zuen Hego Euskal Herritik eta geroztik ez zuen euskaraz gauza handirik idatzi. Bere hiztegia hor dago (1926), jakina, baina baliteke, Hegoaldean gelditu izan balitz, beste irakurgairen bat idaztea.

Parisen izan zuen egoitza. Munduan barna harat-honat ibili zen. Oso lagunkin zen eta jende handiak onetsia. Ferdinand Foch marexalak arima zuzendaritzat zeukan.

Berrogei eta hamazazpi urte zituela Rouen-en giharren ahultasunak jo zuen. Harrezkero gaitz horren mende egon zen, hogeit eta hiru urtez. Sinesmen eta pazientzia handiz egari zuen gaixotasuna.

Yolandaz ari garela hauxe esan behar dugu: eleberria urte urrietan idatzi zuela Lhandek.

Agirrek 1912an argitaratu zuen *Garoa*. 1912tik 1937ra, 25 urtean, hots, beste Agirrek, Tomak, *Uztaro* idatzi zuen urtera arte, eleberri nahiko eskasak agertu ziren euskaraz.

1918an Azkuek *Ardi galdua* atera zuen. 25 urte horretan idatzi zen hoberena, bera ere goiko mailara iritsi ez arren.

Hiru urte geroagokoa, 1921ekoa dugu aztertzeraz goazen eleberria.

1926an Barbieren *Piarres* agertu zen mugaz bestaldean. Euskara dotorea duen eleberri kaxkarra.

1931n eta 32an Agustin Anabitartek euskal ohiturazko eleberrietan eredu diren bi eleberri eman zituen, *Usauri* eta *Donostia*, indar gutitakoak.

Irakurgai guztien artean *Yolanda* da pizgarriena, oso laburra izanik ere.

Aldi hau beraz, nahiko iluna da. Aldi luzea, urria emaitzetan.

Atzerrian, berriz, garai honetan berean idazle ospetsuak lanean ari dira emaitza bikainak munduratzuz: Musil, Joyce, Kafka, Faulkner...

Gure egunotan Pierre Lhande batez ere bere hiztegiagatik da ezagun. *Dictionnaire Basque-Français* egiteko, Lhande R.M. Azkueren, M. Harrieten, M. Hiribarrenen eta P. Foixen lanetan oinarritu zen.

1. YOLANDA IRAKURGAIA

Ze kontkizun mota den

Eleberritxo hau abentura eleberrien artean sartu dugu. Nahi izanez gero eleberrri historikoen artean ere sar liteke, XVII. gizaldian euskaldunek eta flandestarrek elkarrekin zituzten harremanen barruan gertatzen baita.

Ohiturazkoetan ere sailka genezakeen, burdinoleta giroa berpizten baitigu IX. kapitulua toberak nolakoak ziren azaltzeko jarria dago eta.

Dena dela, guztira, abentura kutsua handiena dela iruditzen zait eta sail horretan sartu dut.

1. Yolanda

Kontakizunaren fabula

1623. urtean gertatzen da, Urdanibi burdinolan (Hondarribian). Egungo egunean ere bada XVII. mendeko Urdanibia jauregia Hondarribian.

Burdinola honetan Ixtebe jaun aberatsa bizi da hiru alaba gazterekin. Zaharrenak Yolanda du izena. Burdinola harremanetan zegoen Flandesetik zetozen ontzi gizonekin.

Eguberrietan Jordaens flandestarra, ontzi baten nagusia, burdinolara heldu da. Yolanda ikusiz, hartaz maitemindu da.

Neskatxari bere maitasuna agertu dio. Honek onartu ez, ordea, beste gazte bat maite baitu, Azturiagako Yoanes.

Behartsu zen Yoanes, ordea, eta Urdanibiko jaunari ez zitzaion bere alabarentzako senargai egokia iruditzen.

Atzerritarra denez gero, Yolandaren aitarengandik ezer itxaro ezin duela badakielako, flandestarrak neskatxa gauez atxilotu eta bere ontzian sartu du, Flandesera eramatekotan.

Yoanes, baina, Yolanda oso maite duelako, erne dabil, flandestarraren gogoanbehartsu. Yolanda ontzian sartzen ikusi du eta anaia Urdanibira bidali du, gertatutakoa gaztigitzera.

Berak Jordaensi bere burua lemazain eskaini dio, ontzia itsas ibaitik lehenbailehen ateratzeko. Itsas zabalera atera beharrean, baina, ibai bazterrera eraman du eta han, anaiaren abisuz gorderik dauden Urdanibitarrek harrapatu egin dituzte flandestar guztiak.

Urdanibira eraman dituzte eta han, burdinolan, Jordaens irristatu egin da eta gabiaren azpira sartu. Puska-puska eginda gelditu da.

Irakurgaia Yoanes eta Yolandaren ezkontzaz bukatzen da.

1.2. Testuko euskarari ohar batzuk

Literatura lanetan, hizkuntzak pisu handia du. Gogoeta sakonak eta hizkuntza bikaina, biak elkartu behar dira, idazle handiek, Cervantesek eta Shakespearek, adibidez, egin zuten bezala. Mami sakona euskara trakets ez jantzia itsuskeria bihurtzen da.

- Eleberria gipuzkera osatuz idazten saiatu da.

- Ez da euskara oso ona. *Ordu bertan, Yolanda begiratu zuan* eta horren antzekoek Lhande euskararen jabe osoa ez zela susmatzeko motiboa ematen digute.

- zarabillen: zerabilen. Mugaz bestaldean guk iraganean *e* erabiltzen dugun zenbait kasutan *a* erabiltzen dute: bazakian.

- matxarda: Gaztainak morkotsetik ateratzeko zurezko tenazak. Goizueta eta Sunbillako baserrietan maiz ikusi ditut.

- gabi *edo* mailu, ugindu *edo* txukatu, urbildu *edo* urreratu: gaurko egunean horietako bat aukeratuko genuke. Erkiagari ere hori egotzi izan dio norbaitek, *edo* gehiegi erabiltzen zituela, sinonimoak ezartzeko.

- gabi: oletako mailu handia.

- naza: errotako ur bidea.

- ordu bertan: trakets. Herriak esan ohi du: *ordu berean* edo *orduan bertan*. Lhande gipuzkeraz idazten saiatu da baina batzutan ez du asmatzen

- aize arkak: haizetoki. Arka: toki.

- ufaka: haizeka.

- jaurtiki: Beste tokitan *jaurti*.

- zamar: burdin arrunta, escoria. Zamarra kendu: desnatar

- zapatu: zapaldu. Mugaz bestaldean ez dute *zapaldu* erabiltzen

- burniari lotu: ongi. *Lotu*-k datibo eskatzen du: *Lotu zaku-rra sokaz arbolari*. Gaurko egunean huts asko egiten dira *lotu* aditzarekin: *Erabaki hori gobernuarekin lotzen dute (gaizki)*. *Erabaki hori gobernuari lotzen, estekatzen diote* (ongi).

- gelditu arteraiño: edo *gelditu arte*. Herriak *-raino* denbora adierazteko ere erabiltzen du: Lauretatik *zortziretaraino* edo zortziak arte.

- egotzi: bota. Mugaz bestaldean ez dute jeneralean *bota* erabiltzen. Birao *egotzi*.

- *zelaira etzan*: zelaian etzan. Etzan eta eratzean aditzekin ez da eskuarki adlatiboa erabiltzen, inesiboa baizik. Hilobian datza. Bestaldetik *etzan* eskuarki intransitibo da. Kasu honetan *eratzan* hobeto legoke. Etxepare: *Nik nabien dudanian ber-*

zek besoan daratza. Añibarro: Lau bost urtetik gorantzako seme-alabak oean alkarregaz badaratzuz.

- ikastatu: ikatzez beztu. Ikastatu, zilarrestatu.

- jeitsi, jetxi, jaitsi. Faktitiboa *eraitsi, eratxi. Kantinak bete esne egunero eraisten dituzte baserritik kalera* (Horrela Azpeitiko eta Errezilgo baserrietan).

- Jordaens flamendarra. Ongi. A. Jentilizioa izen propioen atzean ipintzen da. Pedro azpeitiarra, Gorvaxov errusiarra, Jordaens flamendarra, Maritxu sunbildarra. B. substantiboekin, ordea, aurrean ipini dute klasikoek eta egungo egunean baserri-tar guztiek zazpi probintzietan. Adibideak: aihertar emakume bat, azpeitiar gizon bat, goizuetar neskatxak, irlandar abertzaleak, errusiar gizon bat, Mendiburu, oiartzuar jesuita (O), azpeitiar frantziskotar bat (O), frantses euskalduna, espainol euskalduna, frantses neskatok bat, nafar haizea, nafar gazta. Espainolez pentsatzen *dutenek haize nafarra, gobernu palestinarra, Estatu espainiarra...* esaten dute.

- bihurtuko zeranean: quand tu retournera. Leizarragak ere horrela. Hegoaldean: *bihurtzen zarenean*. Lehenago: *bihur zaitezenean*. Herriak honela dio: Zakur ona *izango bada*, aho sapaia zuria *izan behar* du.

- Gipuzko: Gipuzkoa. *a* organikoa da.

- aditu ez bezala: erdararen usaina. *Ez aditu iduri egin, Ez adituarena egin, Alegia ez aditu egin, Ez aditu egin, Iduri eta ez aditu, Ez aditu itxura egin, Entzun ez zuelakoa egin zuen*

- ateara: *atera*

- kanpoari begira: Gaizki. *Kanpora* begira. Bereiz ezazu: *kanpoari begira* = al campo (itsasoari begira bezala) / *kanpora begira*: ez barrura, kanpora baizik

- bidearen barrena: *bidean* barrena, *bidetik* barrena.

- suil: iturritik ura ekartzeko buru gainean eramaten zen ontzia.

- etxearuntz: gaizki. *etxerantz, etxeruntz.*
- etxearuntz *zebillen*: Herriak ez du hori esaten, *zihooan* baikik.
- Yolanda begiratu zuan: gaizki. Egungo eguneko idazle askok egiten dute huts hau berau. Begiratu: mirar: datibo. *Neskatxari begiratu zion.* b. zaindu, jagon, babestu: akusatibo. “*Jau-na, begira gaitzazu gaitzetik*”. *Goizetan amonak begiratzen du haurra.*

- “Zure... duanean...” arteko esaldiak traketsak dira:

“Zure etxean gure aberriko mutil gazte bat, biotza zure bur-ni ori bezain otz eta gogor daukala (duela) sar diteke, baina nik dakidana bere begiez ikusi duanean ezin leite bere bihotza zure miak bezala hautsi ta puxkatua utzi gabe”.

- Euskaraz ongi zekienez duda egin daiteke eta gipuzkeraz idatzi nahi izateak ez dio mesederik egin.

1.3. *Idaztankera.*

Gertaerak kontatzean ez du indar handiegirik; literatura ba-liabide gutxi. Astuntxo egiten da: Orduan, (h)orrela, *edo, eta* gehiegi.

- Esaldi laburrak eta luzeak ongi tartekatzen ditu.
- Halere batzutan deskribapenak luzetxoak.
- Burniolako pasarteak Peru Abarkarena oroitarazten digu. Deskribapen hau egiterakoan burdinola begien aurrean zuela susma liteke(.

1.4. *Gaia*

Aspaldikoa. *Iliada* honen antzeko gai batean oinarriturik dago. Troiako Parisek Helena, Menelao greziarraren emaztea bahitu eta berarekin eraman du Troiara. Greziarrak Troiara do-az emaztea atzera ekarri eta mendeku egitera (.)

Markina antzerkigilearen *El sol se ha puesto en Flandes* (1910) antzerkiak ere gai bertsua darabil.

Euskal olerkietan ere aurkitzen dugu antzeko gairik : *Andere lokartua* (Onaindia: Mila ..., 50 or.) eta *Neskatxa ontziratua* (Mila... 52 or.) Hemen neskatxa bahituak bere buruaz beste egin du. *Yolandan* happy end dago.

1.5. Egitura.

1. Flamendarra etortzea eta neskatxak haren maitasuna zapuztea. 2. Neskatxa ontzian sartzea. 3. Neskatxa libratzea. 4. Ezkontza.

Ekintzaz denaz bezanbatean Yoanesez flamendarraren asmoak asmatzea eta bere burua lemazain agertzea nahiko ahul dira.

Jordaensen heriotza ere nahiko sinesgaitz da. Gerta liteke, hala ere.

1.6. Pertsonaiak

- Jordaens da biribilena, gaiztoena denez gero; egiazkoena ere bai.

- Ixtebe *Garoaren* Joanesen antzekoa da baina ez du hark bezainbateko pisurik.

1.7. Ideologia.

Ideologia gehiegi; euskaldunak goraiapatuegiak, behar bada.

1.8. Teknika

Kontakizuna hurrenez hurren doa. Urdanibia locus amoenus da

2. AZKEN IRITZIA

Yolanda eleberri laburtzua da. 75 orrialde ditu. Ezin esan kontakizun edo *irakurgai* (Lhandek berak deitzen dion bezala)

ona denik. Ekintzari, pertsonaiari eta euskarari akats nahikorik aurkituko dizkie irakurleak. Merezi du, halere, irakurtzea.

3. BIBLIOGRAFIA

- Epherre, Guillermoren hitzaldia: “Aita P. Lhande Ziberotar Euskaltzainaren orhoitzapenez”, *Euskera*, 1960, 5-19
- Etcheberry, J.B. *Ene orhoitean*, Baiona, 1989, 144 hurr
- Lhande Pierre: *Yolanda.Irakurgaia*. 1921. Argiaren idaztiak. 1^a.1^o Irarkaldia, 11 x 17. 75 or.
- Onaindia, Santi: *Euskal literatura*, Etor, Bilbao, 1975, IV-394 hurr.
- Onaindia, Santi: *Milla euskal-olerki eder*, Karmeldar idaztiak, Larrea- Amorebieta, 1954